


aikor!

txorierriko aldizkaria



Amaia Olabarrieta eta Gorka Azkorra,

Odol berria Athleticentzat

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobieta, Mariipi Agirre, Ana Mezo,
Iñaki Beitia, Gabriel Etxebarria,
Oskarbi fotografoak, Gorka, Iñigo
Urrutia, Larrabetzuko Geroa Elkartea,
Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esaneren edota eritxien
erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



13 Asier Bilbao



28 Aretxalde Zalditegia



24 Zamudioko Jaiak



11 Ander Lipus



26 Sondika Goiri Argazki Taldea



14 Rezikleta

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Kultura 11Gurean
izan da... Ander Lipus 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Asier Bilbao
14Rezikleta 16Amaia Olabarrieta eta Gorka Azkorra 20Zamudioko
San Martin Jaiak 26Sondika Goiri Argazkia Taldea 28Aretxalde
Zalditegia 29Teknologia 30Txorierrri ezagutu 31Txorierritarrak mun-
duan 32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Zer eskaintzen digu hezkuntza sistemak? Zer da nahi duguna?



Ana Mezo
(Irakaslea)

Madrileko edo Pariseko Hezkuntza Ministerioetatik eta Gasteizko Hezkuntza Saitetik eskolara bidean gobernu desberdinek eskaintzen diguten hezkuntza sistema dago. Eskaintza hau ezaugarri zerrenda luze batez osatuta dago. Eskaintzen zaigun hezkuntza kalitatezkoa ei da, ikaslearen gaitasun garapena neurtzen ei duena. Esaten zaigu hezkuntzak, berdintasunean, gizartearen exijentzietara egokitu behar duela bere egitekoa, inklusiboa izan behar duela, UNESCOk dioen moduan. Hezkuntza Sistemak desberdintasun sozialak eta kulturalak konpentsatu egin behar ditu. Hezkuntza partehartzailearen gainean berba egiten da. Familien zereginetan eskolarekin kooperatzea dago. Ondo jantzita dauden irakasleak behar ditugu ikasleak motibatzeke eta familien partehartzea indartzeko.

Administrazioak ere bere funtzioak ditu, erraztasunak eman behar ditu eta bitartekoak jarri hezkuntza komunitateko eragileek eginkizunak bete ditzaten. Ikastetxeek beste hau ere eskaintzen dute: teknologia berrie-

tan eta atzerriko hizkuntzan puntarengo prestakuntza, Europara zabalik dagoen hezkuntza planteamendua irudikatzen digute, euskararen normalizazioaren bidean dagoena, ingurumena zainduko duena, bestelako zerbitzuak eskaintzen dituen: jantokia, autobusa, Haur Eskolak etab.

Aipatutako guztiari erreparatzen badiogu gizartearen sortzen diren sentipen eta arazoetatik oso hurbil lan egin behar dute ikastetxeek. Horretan dago Hezkuntza Sistemaren arrakasta. Gizartearen ulertzeko eta bizitzeko estilo kritikoan formatzen lagunduko dio ikasleari. Egoki egitean dago gakoa.

Baina, Euskal Herrian bizi edo bere burua euskalduntzat hartzen duen batek zer

da gura duena?

Batetik, kalitatezko eskola, berdintasunean lan egingo duena, ingurumena zainduko duena, eta abar, baina, bestetik, Euskal Herriko eskola nahi dugu, herri honen bizi-iraupena eta herri izaera bermatuko duena eta Euskal Herria eza-gutzen eta maitatzen lagunduko duena, arrotzak diren kulturak ulertzen eta begirunez

tratatzen irakatsiko duena. Ez ote gabiltza bada, arrotza zaigun Hezkuntza Sistemaren lanean? Ikustea besterik ez dago Gasteizek duen eskuduntza maila, Nafarroan egoera kaxkarragoa da eta Iparraldekoak prentsan egunero ikusi ditugu sortu zaizkien arazoen-gatik.

Beraz, erabakiak hartu beharra dago, Euskal Herriko ezaugarri propioak izango dituen Hezkuntzaren bila joan behar da, curriculum propioa behar dugu eta eskola gestionatzeko eredu desberdinen gainean eztabaida egin beharra dago.

“Euskal Herrirako ezaugarri propioak izango dituen Hezkuntzaren bila joan behar da eta eskola gestionatzeko eredu desberdinen gainean eztabaida egin beharra dago”

Sustantziabakoak!



Juan Luis Goikoetxea
(Irakaslea eta euskaltzain urgazlea)

Bizkaieraren lurretan bizi den euskaldunarentzat sustantziabakoa izatea, ganorarik ez daukana izatea da, oinarri bakoa, arina, txoriburua. Artikulu honetarako sustantzia berba barik substantzia eta akzidentea hartu ditugu, ondorio berberetara heltzeko.

Euskaraz bizitzea jartzen badugu substantzia moduan, gainerako izateak akzidente izango dira. Ilegorri izatea ez du derrigorrezko pertsonak, beltzarana ere izan daiteke, ilea akzidentea da. Gure Euskal Herrian akzidentea monarkiko edo errepublikano izatea da, baina substantzia euskaraz bizitzea.

Sarritan, norberak halako baieztapenak iragartzera ematen dituenean, erantzun bortitza jasotzen da, “Burujabetasunik gabeko nazioan, hizkuntzak ez du etorkizunik!” edo antzerako zer edo zer. Ados! Hala ere, ezin ukatuko da burujabe erdaldun bihurtu gaitzkeenik, hots, substantzia galduriko herri.

Ostera, euskaraz bizi bagara, euskal kultura sortuz dihardugu, geure substantziari uko egin barik, burujabetasunera iritsi ez garen sasoietan ere. Honetan bat ez bagatoz, zertan etor gaitzke errepublikanoak eta monarkikoak?

Substantziak, oinarritzakoak batzen ez bagaitu, akzidenteak batuko gaitu? Zelan uler daiteke, oraindik, 20 urteko neska-mutilak -alderdi abertzaleetakoak- politika erdaraz egiten ibiltzea; udaletan erdaldun jardutea?

Gaztea, abertzalea eta erdalduna? Sustantziabako galanta!

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Danok batera, euskal presoak Euskal Herrira

1985ko bagilean Joserra Goikoetxea, Loiuko Etxezabala baserriko semea, hilda agertu zan Alcala-Mecoko kartzelan, eta aurtengo uztailan Oihane Errazti donostiarra Fleury-Merogisen. Eurekaz, azken 20 urteotan 19 abertzale hil dira Espainia eta Frantziako kartzelen podasuz. Era berean, presoak bisitetako bidai luzeetan, 15 lagun hil dira auto istripuetan. Aurten -oindino gitxienez- ez da hildakorik egon, baina gaur arte kaminoetako 36 ezbehar izan dira, eta 100dik gora kaltetu edota zauritu.

Euskal presoak Euskal Herriko kartzeletan egon behar gara, legeak berak behar aginduten dau: bere kondena betetako presoak etxetik ahalik eta hurren egoteko eskubidea dauko. Presook, kanpoko kartzeletan bananduta egonda, era guztietako eskubide urraketak sufritzen doguz. Hainbat isolamendu edo bakartze egoera gorrian dagoz eta geure burua heriotz arriskuan dago beti, Madrileko M-11 dala-koaren ostean jazo zan moduan.

Eta batez be geure famili eta lagunentzako kaltea da etxetik hain urrineko kartzelatan egotea; diru aldetik be galdute



“Azken 20 urteotan 19 abertzale hil dira Espainia eta Frantziako kartzelen posaduz”

handiak dakarz. “Euskal presoak Euskal Herrira” eskatutea ez da geure ideakaz bat egitea, pertsona batzuen eskubideen alde egitea baino. Euskal preso politikoak Euskal Herrian dagoan gatazka politikoko parte gara, eta gaur egungo egoera larri-gaz amaitu gura badogu berbea euki behar dogu. Horretarako, Euskal Herriko

kartzelatan batutea beharrezkoa da.

Alderdi eta sindikatu abertzaleak, Gasteizko Legebiltzarra, Herriak, NBEko Giza Eskubideen Errelatorea, era guztietako alkarteak, milaka herritar manifestaldien bidez eta Eliza euskal presoak Euskal Herriratzearen alde agertu dira hainbat biderrez. Estatuak, oster, presoan egoera mantendutene bere indarra agertu gura dau, Euskal Herriko gehiengoaren ganetik bera dagoala argi erakutsiz.

Euskal gizartearen eskaera honeri bultzakada bat emon behar deutsegu. Etxerat!ek (presoan senideen alkarteak) hileroko azken barikuetan herri gehiengotik burututene diran agerraldietan parte hartuteko deia egiten deutso gizarte osoari. Txorierri, Leioan, Erandion, Sondikan, Lezaman eta Larrabetzun egiten dira gaur egun agerraldiak. Hori dala-ta, ba, zahar, ume, heldu zein gazte hileroko azken barikuetan DANOK BATERA, EUSKAL PRESOK AK EUSKAL HERRIRA!

Jose Migel Etxeandia Meabe.
Preso politikoa, Aranjuezeko kartzelan

02.966

Gabonetako loteria

Txorierriko taberna eta komertzioetan

Lagundu **Aikor!** -i!

Lagundu zure aldizkariari!



Okerrak zuzenduz

Aurreko aldizkarian, Iñigo Couto Loiuko LEKE elkartearen presidentea zela esan genuen 26. orrialdean, baina informazioa ez da zuzena. Elkartearen presidentea Vicente Arteagoitia Loiuko alkatea da; Iñigo Couto, berriz, diruzaina da.

Mugikortasun Iraunkorraren Astea Txorierrin

Irailaren 16tik 22ra bitartean Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatu zen Europa mailan. Aste horren helburua zen herritarrek eta erakundeek hausnarketa egitea hirietan izaten den mugikortasun arazoari buruz. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu ziren: hitzaldiak, tailerrak, Autorik Gabeko Eguna... Hurrengo lerrootan Txorierrin izan ziren ekintzen berri emango dizuegu.



Autorik Gabeko Eguna ospatzeaz gainera, umeentzako tailerrak (txapak, trafiko seinaleak...) egin ziren irailaren 22an Sondikan. Bizikletentzako zirkuitu berezia jarri, eta txikienek motozikletaz paseoa egiteko aukera izan zuten, pailazo batek bide-segurtasunari buruzko istorio bat kontatzen ari zitzaien bitartean. Arratsaldean martxa zikloturista egin zen herritik.

Umeei zuzendutako zirkulazio hezkuntzari buruzko ikastaroa egin, eta herritarren artean 300 creditrans banatu zituen Loiuko Udalak. Gainera, bizikletentzako lekua atondu zen espaloietan, eta elkarrekin ibili ziren oinezko eta ziklistak irailaren 18an. Herritik bizikletaz ibiltzeko 61 oztopo topatu ziren.

Autorik Gabeko Egunarekin batera, bizikletarekin lotutako hainbat ekitaldi

egin ziren Derion: tailerrak, paseoak... Gernikako Arbola, Larrabarri eta Urkiola kaleak itxi, eta bertan patinez eta trizikloz ibiltzeko aukera izan zuten umeek.

Zamudioko umeak kalean aritu ziren jolasean irailaren 22an, izan ere, herriko hainbat kale itxi egin ziren Autorik Gabeko Eguna ospatzeko. Udaletxean osoko bilkura berezia egin zen eta umeak bertara joan ziren, mugikortasunaren arazoa konpontzeko proposamenak egitera.

Lezamako Udalak Energia berri-ta garriak eta energia aurreztearen etxean hitzaldia antolatu zuen, baita auto hibridoari buruzko erakusketa ere. Honek motor elektrikoa eta gasolinazkoa erabiltzen ditu. Batzuk gidatzera ausartu ziren.

Azkenik, autoaren erabilerak sortzen dituen arazoaren berri eman zen Larrabetzuko denda eta udal instalazioetan jarritako hainbat paneletan. Txapa jokoak ere egin ziren, eta Hortzmuga taldeak Los neumaticos lana antzeztu zuen herriko kaleetan.

Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka Sondikan

Azaroaren 14an, domekan, Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka egingo da Sondikan, goizeko 10etatik arrastiko 2,30ak arte, Ikurrinaren plazan eta geltokiko aparkalekuan. Bertan 100 bat ekoizle hartuko dute parte, eta 100 bat abere egongo dira ikusgai: asturiar arrazako behiak, idiak, ardiak, pottokak...

Goizeko 11etan txakolinaren eta Idiazabal gaztaren dastaketa egingo da. Eguerdian, dantzariak euren agerraldia egingo dute. Arrastiko ordu batean, artzain txakurren erakusketa izango da.

Umeentzako poniak, txistulariak eta dultzainarik ere izango dira goiz osoan.



XXI. ardi-txakur lehiaketa Lauroetako San Migel jaietan

Oraintsu izan dira San Migel jaiak Lauroetan, eta hainbat ekitaldiz gozatzeko aukerea euki dogu bertan; euron artean bertsolariak, Ipar-Alde taldeko dantzari eta kantariak eta idi-probak izan dira. Baina, zalantza barik, ikusminik gehien sortu dauan ekitaldia ardi-txakurren txapelketa izan da.

Aurten XXI. edizioa bete, eta Euskal Herriko bost artzainek hartu dabe parte: Ilarduiako Jose Mari Jauregi Arabako txapelduna, Bizkor txakurragaz; Aresoko Jose Antonio Alutza Nafarroako txapelduna, Argigaz; Eibarko Andres Atxa Gipuzkoako txapelduna, Txatogaz; Orozkoko Enrike Mendiguren Bizkaia, Euskadi eta Nazio Arteko txapelduna, Rikigaz, eta Laukizko Iñaki Ostolozaga, Lagun txakurragaz. Ardiak Erregatoko Txutxi artzainak jarri zituan.

Txakurrek hiru ariketa egin behar izan ebezan: ikurrinen artetik pasa ondoren artaldean sartu; ardiak artzainaren aurrean batu eta hesi-ateetariko batetik pasatzen ahalegindu, eta, azkenik, animaliak eskor-

tan sartzen saiatu eta atara barriro.

Bost txakurrek gaintu ebezan proba guztiak, baina Ostolozagaren Lagun txakurra irabazi eban lehiaketa. Eta sorpresa handia izan zan, aurreko titulurik ez ebalako. Riki eta Bizkor txakurrek bigarren eta hirugarren postua lortu eben, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, aurtengo ardi-txakurren lehiaketan giro ezin hobea egon dala aitatu behar da, izan be, txakurak primeran ibili dira, eta jendearen erantzuna apartekoa izan da.

Testua eta argazkia: Iñaki Beitia



Gabonetako postalak salgai jarri ditu Behar Bidasoa GKEk

Gabonak gertu ditugu, eta aurreko urteotan bezala, Behar Bidasoa Gobernu Kanpoko Erakundeak Gabonetako postalak jarri ditu salgai aurten ere. Postalok Txorierriko liburudenda gehienetan aurkituko dira, eta partikular zein enpresek izango dute erosteko aukera. Halaber, 944555058 telefono zenbakira deitu ahal da, postalak erosteko nahiz saltzen laguntzeko.

750 litro txakolin saldu dira Lezamako Uzta egunean

Urriaren 3an Uzta eguna ospatu zan Lezaman, eta bertan bildu ziran 5000 bat lagunek 20 txakolin mota ezbardin —zuria, gorria eta baltza— dastatzeko aukerea izan eben.

Aurtengo Uzta egunean 35 ekoizleek hartu eben parte, eta horreetatik 12 txakolingileak izan ziran. Era beran, 1200 kopa banatu eta 1000 txakolin botila saldu ziran, 750 litro hain zuzen be. Horrezaz ganera, urteko lehen mostoa (200 litro) edateko aukerea izan zan Lezaman. Mostoa bertako hondarribi zuri mota erabilia egindakoa zan.

Goiz osoan zehar, umeentzeko jolasak eta tailerrak izan ziran plazan; euron artean aitatzeak dira baserriko ogia, gazta eta mahats tailerrak. Azpillaga eta Mañukorta bertsolariak be posturik postu ibili ziran, trikitixak lagunduta, txakolin baktxaren berezitasunak kantatzen.

Sondikako Gabon Postalen Lehiaketa

Laster izango dira Gabonak, eta Sondikako Udalak Gabon Postalen Lehiaketa antolatu du, beti lege. Aurtengoa XIII. edizioa izango da. Lanak aurkezteko epea azaroaren 10ean amaituko da. Lehiaketaren oinarriak liburutegian eta udaletxean eskura daitezke azaroaren 15etik aurrera.

Zamudioko haur eskola zabalik

Urriaren 1ean haurtzaindegia zabaldu zen Zamudioko Agirre lehen-dakariaren plazan. Bertan, 0 eta 2 urte bitarteko 20 ume ingururi ematen zaie zerbitzua, *“gela bi atondu dira eta urtarrilean beste bat irekitze -ko asmoa dago. Logela eta psikomo -trizidadea lantzeko gunea ere baditugu”*, azaldu diote langileek Aikor! aldizkariari.

Zamudioko Udalak lokala, garbitzailea eta material osagarria (altzairuak, sehaskak...) jarri ditu, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, hiru langileak eta oinarritzko materiala (jostailuak...). *“Instalazioen aldetik onenetariko bat da, izan ere, lokalaren barruko antolaketa nahikoa zaindu dute. Parketxo bat falta da kanpoan, baina laster egingo da”*, esan digute.

Haurtzaindegia goizeko 7.30etatik arratsaldeko 5.30etara egoten da zabalik, eta umeek gosaria, bazkaria eta merienda hartzen dute bertan.



“Etorkizunean badago ordutegia luza -tzeko aukera, gurasoren batek eskatuz gero”.

Zamudioko batzokiaren 25. urteurrena

Zamudioko batzokiak 25 urte bete dauz, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin ziran herrian urriaren 23an, zapatuan, eta 24an, domekan.

Josu Jon Imaz EAJko lehendakariak hitzaldia emon eban zapatuan, eta Iñigo Urkullu Bizkai Buru Batzarreko presidenteak mitina egin eban hurrengo egunean. Zamudioko Kamara Korralaren kontzertua, herri bazkaria bertso-lariakaz eta erromeria be egon ziran domekan.

EAJ-PNVren lehenengo batzokia 1907an sortu zan Zamudion, eta gaur egun dagoen etxean (Arboledan) euki eben egoitza. 1934. urtean Etxe-ona etxera (plaza aurrean) eroan zan egoitza. Klandestinitatean hainbeste urte emon ondoren,



Arboledan jarri zan barriro 1979. urtean.

*Testua: Gabriel Etxebarria
Argazkia: Oskarbi fotografoak*

Gabon Txartelen VI. Lehiaketa Lezaman

Lezamako Udalak Gabon Txartelen VI. Lehiaketa antolatu du aurten. Nahi duten guztiek har dezakete parte, eta bakoitzak, gehienez ere, lan bi aurkez ditzake. Lanak Lezamako liburutegian aurkeztuko dira azaroaren 25a baino lehen.

Lehiaketan lau kategoria izango dira: a) 1997an eta hortik aurrera jaiotakoak; b) 1993tik 1996ra arte jaiotakoak; c) 1989tik 1992ra arte jaiotakoak, eta d) 1988an eta urte hori baino lehen jaiotakoak. Kategoria bakoitzean sari bi eta akzesit bat emango dira. Kontuan hartuko da lanak originalak izatea eta Gabonekin zerikusia izatea. Lehiaketaren oinarriak liburutegian eskura daitezke.

Txus del Bado presoaren familiak poliziaren jazarpena salatu du

Txorierriko presoaren senideek Aikor! aldizkariari azaldu diotenez, urriaren 9an eta 10ean Albaceteko espetxera joan ziren bera ikustera, eta *“polizia etengabe izan genuen geure atzetik”*.

Jazarpena handitu egin zen zapatuan: autoaren eta familiakoen dokumentazioa eskatu zieten eta kartzelaraino eta alokatuta zuten pentsioraino jarraitu zien. *“Gainera, pentsioko jabeak deitu, eta poliziak guztion datuak eskatu zizkiola adierazi zigun”*, esan digute. Domekan Madrilerako bidea hartu zutenean amaitu zen jazarpena. Irailean egindako beste bidaietan, poliziak atzetik zutelako susmoa ere izan zuten Del Badoren senideek.

Txorierriko Conversa Comunicaciones SL enpresak ‘Lur Berriak’ eskualdeko saria jaso du

Urriaren 22an, ‘Lur Berriak’ sari banaketa izan zen Zamudio dorrean. Antolatzailea Txorierri, Erandio, Getxo, Mungialde eta Uribe Kostako Behargintzak izan ziren. Sari honek enpresa-kultura zabaldu eta enpresa berrien bidez enplegua sortzea du helburu.

Aurtengoa bigarren edizioa izan da eta Mungialdeko Mundo Ecuere SL enpresak irabazi du lehiaketa. Txorierriko Conversa Comunicaciones SL proiektuak, berriz, eskualdeko saria jaso du. Proiektu honek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie enpresei: prestakuntza, Internet eta bideo-zaintza sakelako telefonoetan... Saritzat 2.000 euro eta Lur Sariak grabatua eman zaizkio.

Eskualdeetako beste sariak irabazi dituztenak ondorengo hauek dira: Rich Media-Bilbao Innovation Group, Getxo eskualdekoa; Restaurante La Roca del Fraile-Herlo restauradores, Erandiokoa; Atxuri MX Motor Denda, Mungialdekoa, eta La Salvaje Surf Eskola, Uribe Kostakoa.

Loiuko Eskulangintza eta Gastronomia Azoka



Urriaren 17an, domekan, Loiuko Eskulangintza eta Gastronomia Azoka egin zen. Pilotalekuan, Herriko Plazan eta Aronsotegi plazan 64 postu ipini ziren, eta bertara hurbildu zirenek baserriko produktuak eta artisauek egindako lanak ikusi eta erosteko aukera izan zuten. *“Eguraldia lagun izan genuen eta jendetza handia batu zen. Salmentak ere oso onak izan ziren”*, azaldu dio Udalak Aikor! aldizkariari.

Eguerdiko 12.30etan, txakolina, ogia, gazta eta txahal-torta dastatzeko une iritsi

zen. Azken horrek jendearen jakin-mina piztu zuen, *“txikitutako okela, gatz, perrexil eta berakatzagaz egindako jakia da. Okela ekologikoa da eta Eusko Jaurlaritzak hala - kotzat onartuta dauka”*. Edariei dagokie- nez, kopa bat erosita gura beste txakolin edan ahal izan zen. Zanpantzarrek eta trikitilariak giroa alaitu zuten.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago Udalak aurtengo azokarako logotipo berria atera duela eta hemendik aurrera azoka guztietan erabiliko dela logotipo hori.

Larrabetzuko etorkizuna eztabaidagai Anguleri jauregian

Urriaren 21ean, eguenean, Zelango Larrabetzu gure dogu etorkizunean? mahai-ingurua antolatu eban Geroa alkarteak Anguleri jauregian. Xabier Gonzalez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren ordezkariak, Maria Isidra Busturia Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko zuzendariak eta Arantza Arrien EHNEko Bizkaiko idazkari orokorrak hartu eben parte bertan. Hizlariak Larrabetzuko moduko hiri batek jarraitu behar deuten gerorako garapen irizpideen ganean aritu ziran.

Baserriaren egoera hobetzeko zaindu beharreko jarrerak azaldu ziran mahai-inguruan, baita etxebizitza edo zonalde industrial barriak proiektatzerakoan hartu beharreko prozedurak be. Horrezaz gainera, Tokiko Agenda 21 herritarrek parte hartzeko eta hazkunde ekonomikoaren ereduari kritika egiteko tresna egokia izan leitekela azpimarratu zan.

Eztabaida aberasgarri baten ostean, partehartzaileek argi utzi eben herritarren arteko eztabaida eta instituzioekiko komunikazioa guztiz funtsezkoak dirala gaur egungo garapen dinamika kolokan jartzeko. Bide horretatik abian jartzeko, erakusketa bat jarri zan zapatu eta domekan Andra Mari kalean, Larrabetzuko proiektu barriak argazkietan azalduz. Eta domekan mendi ibilaldi bat egin zan, herrian azken hilabeteetan izan diran aldaketak be gertutik ikusteko.

Testua: Geroa Elkartea

Urrezko Aizkolarien Txapelketa Loiu

Urriaren 24an, igandea, Urrezko Aizkolarien Txapelketaren finala izan zen Loiu. Bertan Arrospide, Olasagasti, Nazabal eta Larretxe aritu ziren norgehiagoka. Nazabal nagusitu zen 20 puntu lortuta.

Urteko aurrekontuen %9,3 ematen zaio kulturari Txorierrin


Txorierriko Udalek, urtero, 295.511 euro inbertitzen dute kulturean, hau da, aurrekontuen %9,3. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako Bizkaiko kultura eskaintzaren mapa txostenean jasotzen dira datu horiek. Hala ere, ikerketa horretan azaltzen denez, ezin izan dira eskuratu udalerri guztien aurrekontu orokorrak, eta, horrenbestez, Loiu eta Larrabetzuko datuetan oinarrituta atera da ondorioa. Loiu aurrekontuen %10 bideratzen du kultura arlora, eta Larrabetzuko, berriz, %8. Lana egiteko, 2001eko datuak erabili dira.

Txosten horren arabera, beraz, Txorierrin kulturarako 40 euro ematen da herritar bakoitzeko. Kultura arloko aurrekontutik %37 kultur programazioa egiteko erabiltzen da; gainerakoa inbertitzen da, besteak beste, langileen sol-datetan, elkarreentzako diru laguntzetan eta azpiegiturak mantentzeko lanetan.

Udalerriak banan-banan aztertuta, Zamudiok (%64) eta Larrabetzuko (%41) kultura programaziora bideratzen dute dirurik gehien; Sondika, berriz, arlo horretara dirurik gutxien zuzentzen duen herria da: %32. Hala, ere, Txorierriko beste udalerriek baino langile eta azpiegitura gehiago ditu.

Beste alde batetik, kulturako aurrekontuaren %30 ikastaro eta tailerretarako erabiltzen da Txorierrin; %27 herrietako jaietarako, eta %19 irteera eta udalekuetarako. Gainerako ekitaldietarako (hitzaldiak, ikuskizunak, erakusketak...) partidak %1 eta %10 bitartekoak dira.

Txostenean aipatzen denez, Txorierriko Udalek eskaintzen duten programazioaren %74 kulturari dago lotuta, %14 dibertimenduari (herri bazkariak, ludotekak...), %8 turismoari (irteerak...) eta %4 ingurumenari. Hala eta guztiz ere, udalek ez dituzte kultura-



“Ekitaldien %61 euskaraz nahiz gaztelaniaz jorratzen dira, %21 euskaraz eta %18 gaztelaniaz”

ren arlo guztiak jorratzen, izan ere, herri guztietan arte plastiko eta eszenikoak, artisautza, jaiak eta literatura jorratu arren, beste ekitaldi batzuei (hitzaldiak, erakusketak, patrimonioak...) ez zaie behar besteko garrantzirik ematen, txostenaren egileen ustez. Arlo honetan, esparrurik zabalena lantzen duen

herria Loiu da; atzetik Derio, Sondika eta Zamudio.

Publikoari dagokionez, Txorierriko kultur eskaintzaren %41 adin guztietako lagunei zuzenduta dago, %24 umei, %20 helduei, %12 gazteei, %2 zaharrei eta %1 emakumei. Era berean, udal guztiek gehienbat euren udalerriei begira egiten dute kultur eskaintza, azokak eta jaiak izan ezik.

Azkenik, aipatu beharra dago programa, zerbitzu eta ekitaldien %61 euskaraz nahiz gaztelaniaz jorratzen direla; %21 euskaraz eta %18 gaztelaniaz. Ekitaldi horien %52ak doakoak dira.

Ander Lipus, aktorea

“Egiten dakidan gauza bakarra interpretatzea da”

Stanislavskij metodoa ondotxo ikasi zuen Madrilen, William Layton zuzendariaren eskutik. Zazpi urte eman ondoren bertan, Bilbora itzuli eta bere antzerkiaren perzeptzio berezian hasi zen lanean. Utopia Kolektiboa eta Mina Espazioa sortu ondoren Antzerkiola Imaginarioa eratu zuen 1998. urtean. Zamudiora Ardoaz bakarriketarekin etorri zaigu.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Zergatik antzerkia?

Egiten dakidan gauza bakarra delako. Txikitatik sentitu dudana ofizioa da, eta mila arrazoi eman ditzaket... Antzerkia errealitatetik alde egiteko bidea da; nire pasioa, azken batean.

Nola definituko zenuke Antzerkiola Imaginarioaren lana?

Ez diot etiketarik jarriko. Sentitzen dugun antzerkia egiten dugu, eta bertan islatzen dira gure pentsamenduak, estetika, kritika soziala... Antzerki laborategia ere bada, ikerketa zutabe handizat baitauka.

Zelan hartzen du publikoak esperimentazioa?

Nik ez dut esperimentaziorik egiten eszenatoki gainean, obra bat prestatzen nabilenean baizik. Orduan, publikoak nire lanaren emaitza ikusten du; ez esperimentazioa... Hala ere, gauza berria dela esan genezake. Ondo hartzen da –Euskal Herrikan kanpo, batez ere–, baina jendea oraindik hezi beharra dago horretan.

Ardoaz lana Underground Trilogiaren bakarriketa bat da. Zertan datza trilogia hori?

Mozkortiek, umeek eta eroek baino ez dutela egia esaten da trilogiaren lema. Eta egia hori underground-ean gelditzen da, nire ustez. Oso obra ezberdinak dira, baina hirurak Tom Waitts-en Underground abestiarekin hasten dira. Hortik hartu nuen ideia. Ardoaz gehien antzeztu dudana izango da. Jendeari izugarri gustatzen zaio.

2000. urtean Errebelazio Aktore saria jaso zenuen...

Ilusioa egiten du profesioko jendeak ematen dizulako, baina... Saririk onena hortik edo handik lan egiteko deitzea da, eta antzerkitik bizi ahal izatea. Halako sariak egoa handitzeko baino ez dute balio. Zure bidetik distraitzen zaituzte.

Interpretatu dituzun pertsonaia guztietatik, zeinek izan du eragin berezia

“Sariak egoa handitzeko baino ez dute balio; zure bidetik distraitzen zaituzte”

zuregan?

Hemendik bi urtera egingo dudanak: Makari, azkenengo ama. Nire amarengan oinarrituta dago. Egiazko artea egiteko nire bizipenak kontatu behar ditudala pentsatzen dut; ezin ditut bestearnak azaldu. Horregatik, barneko obrak dira gureak.

Agujeros en el cielo filmean hartu duzu parte...

Egia esan, ez zitzaidan papera gustatzen, baina pantailan agertzea erronka zen niretzat. Eta zinea ez dudala gustuko esateko argumentuak badituz orain. Antzerkian zeure buruaren menpe zaude; zinean teknologiaren agindupean. Zinearena ikus-komunikazioa da, baina eszenatoki gainean publiko eta aktorearen arteko komunikazioa zuzena da, energia nabaritzen da.

Proiekturik esku artean?

Pila bat. Doctor Deseo taldearekin kolaborazio bat egingo dut abenduan. Martxel Mariskalek idatzitako *Ezequiel* nobela estreinatuko dut urtarrian, eta *Au revoir, triunfadoreak* martxoan. *Ritos* proiektuarekin ibiliko gara Bizkaitik zehar...

Telebistak nazkatu egin nau

Ez dut esango irakurle amorratua naizenik, ezta gai transzendentalen gainean berbetan orduak eta orduak ematen ditudanik ere; ez. Noizean behin, libururen bat hartu edota lagunekin munduaz aritzea gustatzen zait, baina filosofatzea ez da niretzat. Hala ere, hemendik aurrera halako gaiei denbora gehiago ematea erabaki dut, izan ere, telebistak nazkatu egin nau uda honetan.

Abuztuan hanka apurtu (eskerrak oporretatik itzuli ondoren gertatu zitzaidala), eta etxean egun batzuk igaro behar izan nituen. Ezin hondartzara joan eta ezin lagunekin atera, *“Zortea nirea! Zer egingo dut orain?”*- kalezalea naizenez, desesperatuta nengoen apur bat. Egia esan, asignatura batzuk utzi nituen irailerako, eta ikasteari ekin ahalko nion, baina, badakizue, abuztua zen eta azterketak urrun zeuden artean.

Musika entzuteaz aspertuta, telebistan topatu nuen gogaitasuna kentzeko modua. Bai, xera! Egun horietan ama eta arreba bihotzeko saioen ikusle amorratuak direla deskubritu nuen.

Ez oso goiz, ez oso berandu altxatu, eta gosalduta ondoren, telebista aurrean eseri nintzen. Filma bat ikusten hasi, eta berehala etorri zitzaidan ama *“Utzi beste kate bat jartzen, etxeko gauzak egiten ditudan bitartean entzuteko”*. Ba, bale. Nola esan ezetz? Eta bihotzeko saio bat ikusten, famatuen udaren berri izan nuen. Torero baten emazte ohia ez dakit non zegoela alabarekin, dukesa bat senarrak engainatzen zuela familiako lagun batekin ... Eta larri eta nazkagarriagoa iruditu zitzaidana: guztiok ezagutzen dugun emakume bat hil, eta bere heriotza ez zegoela bat ere argi, ezagunek bere bizimoduaren detaileak kontatzen, oporrak ematen zituen herri-razetari-talde bat joan zela istorio lizun baten bila... Bai, bizirik dauden bitartean, pertsona batzuek beste askori jaten ematen badiete, are gehiago hitzen direnean. Horrela doa herria!

Beno, mundua batzuetan (eta batzuentzat, batez ere) kaka hutsa dela teleberrian



Musika, irakurketa eta bihotzeko saioak uztartzen eman zituen 5 egun Gorkak.

egiaztatu eta gero, filmaren bat ikusteko aukera izan nuen; edo hori pentsatu nuen nik, behintzat. Pelikula bideoan sartu bezain laster *“Ez, ez. Guk orain ikusten dugu ez dakit zer tomateari buruz; eta gero hemengo neska batek aurkezten duen beste saio bat; beno, orain oporretan dago...”* *“Eta iragarkiak jartzen dituzten bitartean, zer egiten duzue? Jokaldirik onenak elkarrekin komentatu?”*- nik. Ba, ez; beste bihotzeko saio bat jarri zuten, esamasekin jarraitu ahal izateko. Paseoa emateko ordua ailegatu zitzaien ama eta arrebari. Hori liberazioa! Lagun bat etxera etorri, *“Ekarri dizkizut komiki hauek”*-, berak. *“Mila esker, beharko ditut”*-, nik. Eta horrela bost egun pasatu behar izan nituen: musika, irakurketa eta bihotzeko saioak uztartzen.

Batzuen ustez, merezi dugun telebista daukagu, eta ez dakit egia izango den ala

ez. Hala ere, badakit telebista-kate batean bihotzeko hiru saio jarraian jartzen dituztela, eta neure buruari galdetzen diot ea gauza interesgarriagorik ez dagoen mundu honetan. Bai, badago, guztiok dakigu; guztiok irakurri eta entzuten ditugu komunikabideetan. Orduan, zergatik gatatzen dute hainbeste diru hainbat eta hainbat bihotzeko programa ekoizten? Entzulerian dago gakoa? Ez dakit, ez dut pentsatu nahi inozoak garela; haiek inozotzat gaituztela nahiago dut pentsatu. Baina benetan hainbat jende jarraitzen die halako saioei? Eta jakin badakit, ados egon ezean, bigarren katean oso dokumental onak ditudala ikusteko... Baina kate horretan baino ez? Futbola herriaren opioa dela entzun nuen behin, eta halako programak ere badirela ez dut sinisten hasi nahi.

Testua: Gorka

Asier Bilbao ★ musikaria

“Metal taldeak bultzatzea dugu helburu zigitutik”

Musika ez dauka lanbide, -“izatekotan, epe luzerako kontua izango litzateke hori” - esan digu Loiukoak. Baina bere bizitzan musikak oso garrantzi handia duela esan genezake, izan ere, herriko Odd Heatenish eta Arrasateko Darkness by Oath death metal taldeetan bateria jotzeaz gainera, duela gutxi Drowned Scream Records zigitua sortu du Asierrek. Eta Loiuko I. Underground jaialdiarekin ausartu zen urrian.

Bi taldeetan jotzeak lan handia ekarriko dizu...

Bai, ez nuen asmorik, talde batekin nahikoa dela pentsatzen dut eta. Hala ere, Arrasateko lagunek euren proiektuan parte hartzea proposatu zidaten, eta oso gustu antzekoak ditugunez baietz esan nien. Talde biak nahiko ondo uzartu ahal izan ditut gaur egun arte, Darkness by Oathekin ez baitugu zuzeneko kontzerturik ematen. Buru-belarri gabilta lokalean, lehenengo diskoa prestatzen. Laster hiru abestik osatutako maketa bat kaleratuko dugu taldea ezagutzera emateko, eta otsailean Cd-a grabatzen hasiko gara.

Baduzue diskorik kalean Odd Heatenish taldearekin?

Ez, baina horretan gabilta. Bederatzi abesti grabatu ditugu, eta urriaren amaieran edo azaroan nahasketari ekiteko asmoa daukagu. Dena ondo irtenez gero, baliteke abenduan Cd-a kalean egotea.

Duela bi urte Drowned Scream Records zigitua sortu zenuten Arrasateko taldekide batek eta zuk...

Euskal musika taldeek badute euren merkata, baina metal estiloa jorratzen dugunok askoz zailago dugu esparru hori lortzeko. Euskal

Herrian badaude gauza onak eta serioak egiten dabilzan bandak, eta jendeak ezagutzea merezi duela uste dugu. Zigituaren bidez, talde horiek bultzatu eta laguntzea dugu helburu.

Eta zigituaren lehendabiziko produktua Slaughterous Souls - A Tribute to At The

“Betiko taldeetatik aparte hainbat banda ditugu Euskal Herrian, eta eurek egiten dutena ere ezagutzea merezi du”

Gates diskoa izan da. Hitz egin apur bat proiektu honen inguruan.

Nire bazkideak eta biok izugarri gustuko dugu At The Gates taldea, eta zigitua estreintzeko talde honi omenaldia egitea pentsatu genuen. Eurekin harremanetan jarri, eta hasierahasieratik lagundu ziguten abestien baimenak, logotipoak, argazkiak eta abarrekoak lortzen. Diskoa Darkness by Oath eta beste nazioarteko 14 musika taldek egindako bertsioek osatzen dute. Guk disko osoa ekoiztu, eta banaketa Goi Music egiten dabil estatu zein nazioarteko mailan. Lan itzela izan dugu, baina At The Gates-ek



Testua eta argazkia: Itxaso Marina

proiektuan inplikatzeko saririk onena izan da guretzat.

Loiuko I. Underground jaialdia antolatuta zenuen urrian. Zelan irten zen?

Fatxadazko jaialdia egin nahi genuen, bertan jotzen zuten taldeak nahiz jendea gustura egoteko. Lortu genuela uste dut; 200 bat pertsona etorri eta guztiok pozik atera ginen frontoitik. Horren inguruan, jaso dugun laguntza guztia eskertu nahiko genuke. Hurrengo jaialdia laster prestatzen hasteko asmoa daukagu, eta Euskal Herriko taldeak ez ezik, atzerriko talderen bat ere ekartzen saiatuko gara.

Halako jaialdiek badute etorkizunik Txorierrin?

Lehenengo honekin horrela izan daitekeela egiaztatu dugu; hala ere, badakit Loiu ez dela herririk egokiena halako kontzertuak egiteko, ez baitago oso ondo komunikatuta. Urte osoa daukagu aurretik, eta oztopo horiek zuzenduz joango gara: autobusak lortu, akustika ona duen lekua bilatu...

Beste alde batetik, kontzertuetara joatera jendea animatzea gustatuko litzaidake, izan ere betiko taldeetatik aparte hainbat banda ditugu Euskal Herrian, eta eurek egiten duten lana ere ezagutzea merezi du.

“Erabilitako ia edozer birziklatu daiteke”

Hondakinak dira, zalantza barik, gaurko bizimoduak dituan ondoriorik deserosoenetakoak. Oraingo gizarteak ezaugarri dauan gehiegizko kontsumoak erantzun zehatzik ez ei daben itaun askoren aurrean jartzen gaitu. Zer egin hondakinekaz? Zelan birziklatu hondakinok? Non itxi, erre edota lurperatu? Batzuek nahiko argi daukie sortutako hondakinei emon behar jakien tratamendua. Rezikleta Elkarte Kooperatibokoek hamaika urte daroe ustez ezertarako balio ez daben altzari, tresna elektriko, paper edota erropak birziklatzen, eta hau, enplegua sortuz eta lan merkatuak baztertutako gizataldeei integratzeko aukerak emonez. Inma Acerok emon deusku Gizarte Ekimeneko Kooperatiba honen nondik norakoen barri.

Testua: Fernando Larrondo



Zer egiten dau Rezikletak eta zein helburugaz?

Ingurumenaren babesaren mesedera-ko edozein jardueratan murgiltzen gara, tresna, paper eta erropa erabilien bilketa eta birziklatzearen bitartez, edozein mota-tako gizarte bazterketa pairatzen daben pertsona eta kolektiboen gizarteratzea sustatuz.

Irabazi asmorik bako alkarte bat gara. Errentagarritasun ekologiko eta soziala dogu helburu, eta lortutako mozkinak

ingurumeneko eta solidarioak diran helburuetara bideratzen dira. Gure errezeta majikoa ondoko hau da: ingurumena jagon enplegua sortuz, edo, gura badozu, enplegua sortu ingurumena zainduz.

Zeintzuk dira eskeintzen dozuezan zer-bitzuak?

Alde batetik, tresna handiak batzen doguz, etxeko tresna elektrikoak, altzariak... Aprobetxagarriak diranak barriro saltzen doguz gure dendetan, eta ezin

badira barriro erabili, lehengaiak aprobe-txetan dira ahal dan neurrian. %76koa da gure errekupeazino maila.

Bestalde, paper erabilia biltzen dogu. 1992an hasi ginan jarduera honegaz, eta gaur egun, EAEko 70 udalerritan daroagu paper eta kartoi erabiliaren gaikako bilke-tearen ardurea.

Erropa erabilia be batzen dogu. Batu eta gero, sailkatu eta higienizatu egiten da. Egoera onean dagozanei Ekorropa etiketea ipini eta geure dendetan dagoz salgai. Barriro erabili ezin diranak industriarako trapeak egiteko eta tapizeria lanetara bideratzen dira.

Hainbat esperientzia be daukaguz beste gai batzuekaz: materia organikoa batu konposta egiteko (Urdaibaian), ontzi metalikoen bilketea edukiontzi beilegie-tan, edalontzi itzulgarrien erabilera susta-tu dogu Bilboko eta Iruñeako jaietan...

Jasotako erropa kantitatea handia da?

Bai, itzela. Erropa erabilien birziklatzea pisu handia hartzen joan zanez, 2002ko urtarrilean Berohi S.Koop. sortu zan, atal honen ardurea bere gain hartu eian. Euskadiko Caritasegaz batera egindako bideragarritasun azterlan baten ondorioz

abiatutako proiektua zan, bazterketa-arriskuan egozan gizon-andreentzat enplegua sortzeko asmoz. Berohi Zamudioko Torrelarragoiti Poligonoan dago kokatua.

Birzikletan dozuezan produktuak saltzeko denda batzuk zabaldu dozuez. Zelan funtzionetan dabe?


Oso ondo doaz. Zazpi denda daukaguz, eta bertan, produktu ekologiko eta errekupe-
ratutakoak saltzen doguz: altzariak, liburuak, jostailuak, erropea, %100 birziklatutako koadernoak, bidezko merkataritzako salgaiak,..... Guk banatzen dogun papera %100 birziklatua da, kloririk bakoa. Paper mota hau banatzen dauan Euskadiko enpresa bakarra gara, gaur egun.

Horrezaz ganera, Rezikletak badu beste zeregin handi bat, ezta?

Bai, holan da. Pertsona behartsuak eta baztertuak gizarteratzeko ekimenetan parte hartzen dogu. Ildo honetan, 1999tik Bilboko San Francisco auzoko Lanberri Prestakuntza Planaren Proiektuan gabilz, bazterketa arriskuan dagozan gazteei Lanerako Prestakuntza ikastaroa eskeintzen. Honez ganera, gure dendetan baliabide gitxiko pertsonen erropea eta altzariak lortzeko aukera emoten jake

Orain arte aitatutako lan horreetan ez zarie bakar-bakarrik ibiliko.

Ez, funtsezkoa da sarean egindako lana, eta horregatik, hainbat elkarte eta kontseilutan parte hartzen dogu, besteak beste, Ekonomia Sozial Solidario Berreskuratzailen Alkartean, Euskadiko Alkarlanerako Kooperatiben Federazioan eta Bilbo eta Basauriko Udaletako Kontseilu Berdeetan.



Rezikletako hainbat datu:

3: birziklatzean sustatutako ekonomia sozialeko enpresak, Rezikleta, Berzikla, Berohi.

62: sortutako lanpostu egonkorak.

10, 8: 2003an errekupe-
ratutako hondakinen milioi kilogramo.

9: hondakinen gaikako bilketarako kamioiak.

6: Bizkaian dagozan Ekorropa dendak.

600000: papera birziklatuz salbetan diran arbolak.

%93: errekupe-
ratutako erropak.

4: hamaika urtetan bildutako tresnak eta altzariak, pilotuta, San Mames moduko azalera batean hartuko leukien altuerea, metroan.

944571447: tresna handiak jasotzeko telefono zenbakia

Berohi, S. Koop.

Caritasek eta Rezikletak bultzatutako enpresa honek erropak batu, aukeratu eta landu egiten dauz. Zamudioko Torrelarragoiti Poligonoan dago bere lantegia. Berton, 45 urtetik gorako langabetuak, etorkinak eta familiaren arduragusia daben andrak hartzen dira beharrerako. Enplegua emoteaz ganera, hainbat erropea errekupe-
retan da, alperrik bota barik. Egindako lan hau Ekorropa izeneko dendetan eskeintzen

da. Denda hauek dagoz: Bilbon bi, Ermuan, Algorta, Durangon eta Galdakaon.

Berohitik esan deuskunez, asko dira denda honeetan erosteko arrazoiak:

- arropa ona eta merkea dago.
- langabetuei aukera ona emotea.
- neurritz kontsumitzea.
- iziadaren ondasunak alperrik erre beharrean, ekologia bultzatzea.
- munduko herririk txiroenei laguntzea.
- gure inguruaren kalidadea hobetzeko erosteko ohiturak hartzea.

Athleticeko fitxaketa berriak



Biek fitxatu dute aurten Athleticceko lehenengo taldean eta dagoeneko ezagunak dira. Futbola osasuntsu dabilelako seinale. Adibide bat ipintzearren: Interneteko Google bilatzailean 'Amaia Olabarrieta' idatziz gero, 30 orrialde inguru aterako dira. Bertan azalduko dira haren fitxa, argazkia eta beste informazio batzuk. 'Gorka Azkorra' bilatuta, berriz, 400dik gora dira

aterako diren orrialdeak. Haien estatusaren beste seinale bat: elkarrizketa hau egin ahal izateko Athletic-ek duen arduradun bati eskatu behar izan zaio baimena. Beraiek gustura erantzun digute.

Athleticeko lehen taldera ailegatu zarete, zein izan da zuen ibilbidea?

Amaia Olabarrieta: Orain dela 4 urte

Athleticen historian ia beti egon da txorierritarren bat jokatzen. Telmo Zarraren garaitik hasita, Koldo Agirre, Aitor Agirre, Etxeberria, Ander Garitano, Aitor Larrazabal... Azken honek taldea utzi eta badugu beste bat barruan: Gorka Azkorra sondikarra. Nesken taldea askoz berriagoa da, baina hasiera-hasieratik izan ditu gure eskualdekoak barruan. Aurtengo fitxaketa berria Amaia Olabarrieta lezamarra izan da. Athleticcek Lezaman dituen instalazioetan elkartu, eta eurekin egon da solasean Aikor! aldizkaria.

Testua eta argazkiak: Jose Angel Mentxaka

sartu nintzen Bizkerren, eta aurten Athleticen. Aurretik ez naiz futboleko ibil-takoa, tenisean aritu nintzen gaztetan.

Gorka Azkorra: Ni eskolan hasi nintzen futbitoan jokatzen lagunekin, eta 11 urterekin Erromora joan nintzen. Han urte bi egin, eta Athleticceko haurren kategoriara etorri nintzen. Hemen jarraitu dut gaur arte.



Izena: Gorka Azkorra	Taldeak:
Trueba	1995-96 Erromo
Adina: 21 urte	1996-01 Athletic
Jaioterria: Sondika	2001-02 Baskonia
Altuera: 1,92 m	2002-04 Athletic B
Pisua: 89 kilo	2004-05 Athletic



Izena: Amaia Olabarrieta Elordui
Adina: 22 urte
Jaioterria: Lezama
Altuera: 1,67 m
Pisua: 55 kilo
Taldeak:
 1999-04 Bizkerre.
 2004-05 Athletic.

Aldatu da zuen bizitza Athleticen fitxatu duzuenetik?

AO: Lezama herri txikia da, eta mundu guztiak daki Athleticen nagoena. Golak sartzera animatzen naute, baina, bestela, berdin.

GA: Kasu gehiago egiten zait kalean, telebistan agertzen naizelako. *"Aupa Athletic!"* eta holakoak esaten dizkirate.

Zein postutan jokatzen duzue?

AO: Euskarri jokatzen dut. Euskadiko Selekzioarekin hegalean ere aritu naiz, bai atzean, bai erdian. Eta postu guztietan ibili naiz Bizkerre taldean.

GA: Ni erdiko aurrelaria naiz. Handia

naizenez, postu guztietan jokatu dut Erromon, baina hemen nagoenetik aurrelaria naiz.

Zein ezaugarri nabarmenduko zenukete zeuen buruan?

AO: Fisikoki ondo nago. Gora eta behera ibiltzeaz gainera partehartze handia izaten dut jokoan. Besteak baino gutxiago nekatzen naiz; hala ere, guztiok sasoi onean gaude.

GA: Nik erraztasun handia daukat golak sartzeko, nire konstituzio fisikoa dela eta. Beste kategorietan tanto asko egiten nituen... Beste alde batetik, arina ere banaiz.

Nolakoa da aste normal bat Athleticen?

AO: Astelehen, asteazken, ostegun eta larunbatetan entrenamendua edukitzen dugu arratsaldeko 7etatik 9 eta erdiak arte; batzuetan gimnasioan, beste batzuetan zelaian... Igandeetan, berriz, partiduak izaten ditugu. Joan behar dugun herria urrun badago, hegazkinez eramaten gaituzte; osterantzean, autobusez.

GA: Goizez entrenatzen dugu egunero, eta asteazkenetan arratsaldez ere bai. Entrenamenduaz aparte kontzentrazioa izaten dugu hotelean larunbatetan. Igandeetan partidua, eta astearteetan jai.



Aldageletan oso giro
ona dagolea ziurta-
tzen dute jokalariek



Erreginaren Kopan egin
zuen debuta Amaiak;
Gorkak, berriz, UEFAn

Zer egiten duzue futboletik kanpo?

AO: Goi mailako informatika modulua egin dut, eta orain lan bila nabil.

GA: Nik enpresa-zientziak ikasten ditut, baina estutu barik. Ez daukat bukatzeko presa handirik.

Zelan ikusi duzue zeuen debuta?

AO: Erreginaren Kopan egin nuen debuta, Sabadell taldearen kontra. Azken bost minutuak baino ez nituen jokatu, baina oso urduri nengoen... Championsean ere ibili naiz, Errumanian eta Suedian. Hauek gu baino hobeak ziren fisikoki zein teknikoki, eta egundoko partida egin arren, 3 eta 2 galdu genuen.

GA: Nik UEFAn, ostegun batean. Oso urduri irten nintzen zelaira, San Mamesen zegoen giroa eta jendetza ikusita... Ondo atera zen. Hurrengo igandean denbora

gehiago eman nuen zelaian, baina gauzak ez zitzaizkidan hain ondo irten. Jokoa zaudenean ez diozu publikoari erreparatzen, hala ere, baloia kanpora bota edota falta bat atera behar izanez gero, harmailetara begiratu eta beldur apur bat ematen du.

Gorka: "Baloia kanpora bota edo falta bat atera behar izanez gero, harmailetara begiratu eta beldur apur bat ematen du"

Ezberdintasun handia dago orain arte ibili zareten taldeen eta lehen mailako-en artean. Zertan igarri duzue zuek?

AO: Jokalarien kalitatean, batez ere. Eta ez bakarrik horretan. Bizkerren hiru edo lau lagun batzen ginen entrenamenduetara, eta suete ona edukiz gero, 6 lagun. Hemen, oster, 18 jokalariz izaten gara egunero. Oso entrenamendu gogorak egiten ditugu, gainera. Athleticetako entrenamendurik lasaiena Bizkerreko gogorrena da.

GA: Maila handiagoa da, eta jarraitzea ez da batere erraza. Baloia azkarrago doa, adi egon behar izaten duzu beti... Jokalariak ere askoz hobeak dira... Eta egiten duzuna prentsan ateratzen da, gainera.

Zelako giroa dago aldageletan? Euskararik erabiltzen da jokalarien artean?

AO: Nesken futbol mundua txikiagoa da, eta elkar ezagutzen dugu guztiok. Beraz, oso giro ona izan dugu hasieratik. Eta dakigunon artean, euskaraz egiten dugu.

GA: Gurean ere oso giro ona dago.

Jende gaztea dago eta batzuek elkar eza-
gutzen genuen lehendik. Euskara erabil-
tzen dugu, baina askok ez dakite.

Pentsatu duzue zelan ospatu zuen lehendabiziko gola Athleticen?

AO: Championsean sartu nuen; ezer
berezirik ez... Irten zena.

GA: Ez daukat ezer pentsatuta.

Hasi zarete prentsaren presioa nabar- mentzen? Badu eraginik jokariengan?

AO: Gero eta gehiago nabaritzen bada
ere, guk ez dugu izaten mutilek izaten
duten presioa. Bazkideak, batez ere, ibil-
tzen dira beti *"Athletic, Athletic!"* esaten.
Haien zat ez dago besterik.

GA: Presiorik ez dago, baina jende
guztiak esaten dizu: *"Ikusi zaitut telebis-
tan"*. Gero Teleberri ipini eta kirol atalean
irteten zara... Arraro egiten zaizu. Dena
dela, gutxi jokatu dut eta oraindik ez dau-
kat presiorik.

**Bata emakumezkoen ligan (amateurra),
eta bestea gizonezkoenean (profesio-
nala) zaudetela kontuan hartuta, galde-
ra ezberdina egin behar dizuet
oraingoan. Zu Amaia, merezi du egiten
duzuen sakrifizioak?**

AO: Nik neuk baietz esango nuke.
Txikitatik gustatzen zaigu futbola, eta egia
da batzuetan pentsatzen dugula mutilek
bezala sakrifikatu arren ez dugula ezer ira-
bazten, baina gustura irteten gara entrena-
menduetatik. Betidanik nahi izan duguna
da.

Eta zu Gorka, zer deritzozu futbola ogi- bide edukitzeari?

GA: Merezi du. Ez dut diruagatik joki-
tzen, baina ordaintzen badidate, hobeto...
Ezin da gehiago eskatu. Batzuetan nahia-

go duzu lagunekin irten, baina ezin zara
kexaka ibili. Badakizu goizez entrenamen-
dua izaten duzula, eta gauzez ezin dela
parrandarik egin... Gainera, ez da lehen
bezala; orain hortik irten, berehala ezagu-
tzen zaituzte.

Autografoak sinatzen hasi zarete?

(Barreak)

AO: Bai. Zapatuetan entrenamendutik
irten eta ume guztiak "Sinatu, sinatu!" has-
ten zaizkizu. Hasieran erdi harrituta...

GA: Pertsona lotsatia naiz, eta oso
arraro egiten zait. Hala ere, gustura egiten
den gauza da. Hona edo aireportura etor-
tzen dira... Kamiseta ekartzen dizute sina-
tzeko, edo argazki bat.

*"Amaia: Mutilek bezala
sakrifikatu arren ez
dugula ezer irabazten
pentsatzen dugu
batzuetan, baina gustu-
ra irteten gara entrena-
menduetatik"*

Elkarrizketa amaituta eta autografo
bana sinatu ondoren, bata entrenamendu-
ra eta bestea berrikuspen medikura doa-
zela agurtu ditugu jokalaria. Ziur gaude
haiei buruz gehiago egingo dena berba.



Ospearen zama nabarmentzen hasi dira Txorierriko jokalaria

San Martinetarako prest!

Azaroaren 10etik 14ra bitartean San Martin jaiak ospatuko dira Zamudion, eta herritar zein txorieritar guztiek erritmoa ez galtzeko moduko egitaraua prestatu dabe bertako jai batzordeak eta Udalak. Asier Amariña Kultura teknikaria eta Elena Iglesias jai batzordeko kideak Aikor!-i azaldu deutsien bezala, *“iazko jaietan lortutako maila mantendu edota igotzeko asmoa dekogu. Herriko talde guztiok buru-belarri gabilz lanean”* .



Kalejirak, kontzertuak, pilota partidak, pailazoak... Aurten ez dekogu aitzakiarik Zamudioko San Martin jaietaraino ez hurbiltzeko. Umeek, gazteek, helduek, herritar guztiek topatuko dabe ekitaldi interesgarriren bat bertan. *“Jaiak gero eta zabalagoak izatea dogu helburu, eta sektore guztiak kontuan hartu izan doguz egitaraua egiteko orduan”*, esan deuskue.

Ohiko ekintzez gainera, nobedadeak be ekarriko deuskue San Martinek. Horrela, bada, Zamudioko I. Mortzila Saria, umeentzako herri kirolak eta mendi-ibilaldia egongo dira lehendabiziko aldiz egitarau barruan. Halaber, Slalona egingo da Torrelarragoiti industrialdean, Txorierri Sport Motor taldeak antolatuta. Proba hau puntuagarriagoa izango da Euskadiko

Txapelketarako, eta 25 bat pilotok hartuko dabe parte.

Zalantza barik, herri bazkaria ekintzarik erakargarrienetarikoa bat da. *“Iaz egin zan lehen aldiz, eta 80 bat lagun batu ginen. Zamudioztar guztiak etortzera animatu nahi doguz aurten, alkar ezagutu eta tarte atsegina alkarregaz pasatzeko”*.

Aukeran taldeak ezin baino amaiera perfektua emongo deutse jaiak. *“Pasa den urtean be ekarri genduan, eta oso arrakastatsua izan zan. Oraingo honetan Izena duen guztia Omen da izeneko lana aurkeztuko deuskue”*. Antzezlanak Udal kiroldegian izango da, beste ekitaldi guztiak karrejoan. Txosnak plazan jarriko dira.

Aurreko urtetako beherakada gaindituta, Zamudioko jaiak berpiztuz joan dira urte bitik hona, *“Ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara. Itxurazko egitaraua antolatu dogu, eta haretan jarri doguz gure ilusio eta itxaropenak. Kontran dekogun gauza bakarra eguraldia da”*.

Beste alde batetik, jaietako ekitaldiekatz batera hilaren zehar idi-probak, ortuari eta ganaduko azoka eta mortzilak egiteko ikastaroa be egongo direla aipatzekoa da. Azaroa nahiko lantsua izango dabe Zamudion, beraz.

Jai egitaraua

Azaroak 10, eguaztena (San Martin bezpera)

19:00etan Pregoia Jonathan Gonzalezen ahotik. Kartel lehiaketaren irabazleari saria emotea

19:10etan Karameluen jaurtiketa

19:15etan Kalejira: txistulari, trikitilari eta buruhandiak

20:00etan Zamudioko I. Mortzila Saria

21:00etan Gau-kalejira Adiskideak fanfarriagaz

Azaroak 11, eguena (San Martin)

12:00etan Meza Nagusia

12:45etan Kalejira

17:00etan Umeentzako Herri Kirolak

19:30etan Erromeria Luhartz taldeagaz

Azaroak 12, barikua (San Martintxu)

12:00etan Meza Nagusia

19:00etan Kalejira

23:00etan Kontzertuak: Kauta, Urgabe

Azaroak 13, zapatua

10:00etan Zamudioko mendietatik ibilaldia. Irteera: Sabino Arana plazatik

12:00etan Kalejira

12:30etan Pailazoak

14:00etan Herri bazkaria

16:30etan Eskolen arteko pilota partiduak
Mus eta briska txapelketa irekia
Adinekoen Etxean

20:30etan Musika klasikoa San Martin elizan

Cuarteto Aresti

Clarinet Quartet

Zamudioko Kamara Korala

24:00etan Kontzertuak: 5 Kontra, EH Sukarra, Sustraiak

Azaroak 14, domeka

12.00etan Abestutako Meza Nagusia:
Mañariako Kirikiño, Zornotzako Abeskimu
Basauriko Soinu Bidea, Zamudioko
Kamara Korala

12:45etan Dantzak

15:00etan Slalona. Euskadiko Txapelketarako puntuagarria, Torrelarragoiti Industrialdean

19:00etan Izena duen guztia Omen da dantza ikuskizuna, Aukeran taldearen eskutik. Udal kiroldegian



Ane Peral, kartel lehiaketaren irabazlea

“Lehengaian oinarritu naz kartela egiteko”



Zelan izan behar dau jaietako kartel batek? Adierazgarria, erakargarria, koloretsua... Faktore asko kontuan hartu behar dira egiteko orduan, kartela jaien aurkezpen gutuna izango dalako. Eta beti ez da erreza izaten faktore guztiok orri batean biltzea.

Ane Peral zamudioztarra jaietako kartel lehiaketaren irabazlea dogu aurten. “Herriko jaietako karteletan beti hartzen dira gauza berberak erreferentetzat: nekazariak, dorrea, eliza, plaza... Ni beste ikuspuntutik egiten saiatu naz: lehengaian oinarritu naz, hau da, txarriari”, esan deusku. Animalari protagonismo osoa emon deutso gazteak. “Nahiz eta galduta egon, txarribodak tradizio handikoak dira Zamudion. Herriari



lotuta dagoz, eta antzinako ohitura hori berreskuratu gura izan dot kartelaren bidez”. Koloreak be lagundu deusie behar honetan. “Baltza eta gorria aurreratu dodaz: lehenengoa udazkeneko kolorea dalako, eta gorria txarriaren odola simulatzeko”.

Hau ez da lehenengo aldia, Anek kartel bat aurkezten dauena. “Egia esan, zaletasun hau daukat. Hainbat lehiaketatan hartu izan dot parte: Bilbon, Gasteizen...”. Ziur asko, sari gehiago jasoko ditu hemendik aurrera.

Zamudioko I. Mortzila Saria

Kazolak (baita jateko gogoa be) prestatzen hasi beharko dogu, izan be, azaroaren 10ean Zamudioko I. Mortzila Saria izango da iluntzeko 8etan. Herriko mortzilagileek guztiek parte hartu ahaliko dabe bertan.

Mortzilak egiteko ezinbestekoa izango da gitxienezko osagai hauek erabiltzea: koipea, txarriaren odola, kinpula, porruak eta arroza. Eta zer esanik ez, txarrien heste naturalak be bai. Txosnako plantxak, 12 kazola, koipezatiak eta porru-punta berdeak erabiliko dira material moduan.

Lehiakideek mortzila-txorta bana gardaraztuta (5 pieza) aurkeztu beharko dabe 18:00etatik 19:00etara bitartean pilotalekuan. Hiru adituk osatuko dabe epaimahaia, eta iluntzeko 9ak aldera jakinarazoko dira irabazleen izenak. Hiru sari emongo dira: lehenengoa 200 eurokoa, bigarrena 125 eurokoa eta hirugarrena 75 eurokoa. Txapelketan izena emaiteko epea azaroaren 8ra arte izango da Udaletxean edota 944060998 telefono zenbakira deituta.

Odoloste eskola Zamudion

Azaroaren 24tik 26ra bitartean, Odoloste Eskola izango da Zamudion, bertako Udalak eta Mendikoik antolatuta. Ikastaroa sukaldari, ostalari, harakin eta gura daben guztiei zuzenduta dago, eta odolosteak Zamudioko moduan egiten ikasiko da bertan. Interesatuta dagozenek izena emon behar dabe Mendikoi ikastegian azaroaren 15a baino lehenago.

Idi probak, tradizioa berreskuratu da aurten

Bederatzi urte igaro ostean, aurten idi probak izango dira barriro Zamudioko probalekuan azaroaren 4, 5 eta 6an. Idi probak tradizio handia izan dabe herri honetan, *“baina oso garestiak dira, eta diru faltagaitik egiteari itxi behar izan geun-tsan”*, esan deusku Txetxu Aurrekoetxeak, Zamudioko Lagunprobazaleak alkarteko kideak. Aurten Udalak bere gain hartuko ditu kostuak, eta barriro ikusteko era izango dogu gaueko bederatzietatik aurrera.

Egun baktxean 3 buztarri lehiatuko dira, eta Udalak erositako 3 tonako harria erabili beharko dabe 30 minutuan. Engantxua zarratu egingo da, eta sarrera librea izango da.

Guztira, 9 sari emongo dira: irabazleak 750 euro, manta eta domina jasoko ditu, eta azkenak 400 euro. Ganera, garraio-kostuak ordaintzeko, 60 euro emango jake Bizkaiko partehartzaileei, eta 90 euro beste guztiei.

“Jentetza handia batzea espero dogu”, esan deusku Txetxuk, *“Idi probak oso arra-kastatsuak izan dira Zamudion beti, eta ohitura pixkanaka-pixkanaka berreskura-tuz joango dala uste dogu. Idi ugazabak be herrira itzultzeko gogoia dabe”*.



Lagunprobazaleak alkarreak hainbat urte emon ditu Zamudion idi probak antolatzen, baita herriko auzoetan antolatze lanetan laguntzen be.

Datuak:

Engantxuak 28 metro luze ditu
4 zatitan banatzen da: laurena, erdia, hiru lauren eta untzea
Luzera bat egitea untze bat egitea da
Harria: 3.000 kg

Parte hartzaileak:

Azaroak 4, eguena, Jon Elortegi “Txapas” (Barrika), Oliden (Orio) eta Martin Urrejola (Zamudio);

Azaroak 5, barikua: Juan Luis Bilbao (Leioa), Kotarelo (Samano), Jon Elortegi “Txapas” (Barrika)

Azaroak 6, zapatua: Lañe Aurrekoetxea (Loiu), Sabin Bikarregi (Erandio), Kotarelo (Samano)

Idiak: Pisu librekoak



Zamudio, Bizkaiko ekoizleen erakustokia

Azaroaren 7an, domekan, Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako XX. Azoka egingo da goizeko 9:30etik eguerdiko 3ak arte. Bertan Bizkaiko laurogei bat ekoizlek hartuko dabe parte; hareetatik hogeita bat txorierriarrak izango dira.

Zamudioko azokan hainbat produktu egongo dira ikusgai

eta salgai: lorak, ortuariak, pastelak, ogia, sagardoa, txakolina... Ganadu erakusketa be izango da. Kopa bat erosita gura beste edan ahal izango da posturik postu. Beste alde batetik, txarribodari buruzko erakusketa bat egingo da DVD eta argazkien bidez. Trikitilariak eta fanfarreek giroa alaituko dabe goiz osoan.

“Leku ezinederragoak ditugu Txorierrin argazkiak ateratzeko”

Udalak antolatutako argazki ikastaro batean parte hartu ondoren, argazkigintzaren inguruan zerbait egitea pentsatu zuten Sondikako 10 lagunek. Horrela jaio zen, 1998an, Sondika Goiri argazki taldea. Begoña Olabarrieta kidea da eta, Aikor!-i azaldu dionez, *“gurea lagun taldea da, batez ere. Baina, noski, guztiok zaletasun bera daukagu: argazkigintza”*.

Sorgina, Sondikako jaietan egindako argazkia

18 lagunek osatzen duzue taldea gaur egun...

Bai, eta guztiok zaleak gara, argazkigintza lanbide duen bat izan ezik. Gainera, Sondikako jendeak ez ezik, Amurrio, Zamudio eta Leioako lagunek ere parte hartzen dute taldean. Argazkigintza zabaltea dugu helburu, eta horretarako hainbat ekintza jorratzen gabiltza: erakusketak, ikastaroak, irteerak... Ekintzok sondikarrei zein kanpoko jendeari zuzenduta daude.

Ekintzez mintzatuko gara apur batean. Zer irakasten da ikastaro horietan?

Gutxi dakitenak oinarrizko kontzeptuekin hasten dira, eta besteek ikastaro sakinagoei ekiten diete: nola erabili argia, nola

egin erretratuak... Badaukagu laborategi txiki bat, eta argazkiak errebelatzeko egin beharreko pausoak irakasten ditugu bertan. Aurten argazkigintza digitalari buruzko ikastaroa egiteko asmoa daukagu, baina zaila izango da: alde batetik, puntako teknologia behar da eta, bestetik, profesional gutxi dago halako ikastaroak emateko.

Bidaia eta irteerak aprobetxatzen dituzue argazkiak egiteko. Erakusketaren bat ikusteko aukerarik izango dugu laster?

Bai, urriko bigarren hamabostaldian, oporretan egindako argazkiak ikusgai egongo dira liburutegian, eta azaroan beste erakusketa bat egingo dugu. Gaia Bilbo izango da. Erakusketa guztiak liburu-

tegian egiten ditugu, eta, lekua oso txikia denez, 14 euskarri baino ezin ditugu zintzilikatu. Hona hemen gure arazo nagusia.

Aurten Sondika XI. Rally Fotografikoa antolatu duzue. Zertan datza lehiaketa hau?

Goizeko 10,30etatik arratsaldeko 5ak bitartean, argazkiak egin behar dira Txorierrin zehar. Rally honek Txorierriri buruzko artxibo fotografikoa osatzea du helburu.

Partehartzaile guztiek aukera berdina edukitzeko, argazki-karretak geuk ematen dizkiegu, eta hainbat kontrol egiten ditugu argazkiak egun horretan egin direla egiaztatzeko. Nahi duten guztiek har dezakete parte lehiaketan, eta hiru sari ematen dira:



Hainbat bidaia aprobetxatzen dute taldekideek argazkiak ateratzeko. Hona hemen Kolonbiako neskatoa



Kristo gurutzefikatuta, Goikoelexaldeko hilerrian

diapositibarik onena, bildumarik onena eta diapositibarik originalena. Aipatu beharra dago argazki guztiak diapositibatan aurkeztu behar direla.

Rallyak aukera ematen du besteengandik ikasteko eta baita Txorierriko leku berriak deskubritzeko ere.

“Argazkigintza zabaltzea dugu helburu, eta horretarako hainbat ekintza jorratzen gabilta: erakusketak, ikastaroak, irteerak...”

Txorierrin hainbat leku eder izango ditugu argazkiak egiteko...

Bai, ezin ederragoak. Herri bakoitzean badira toki polit eta berezi asko: Larrabetzun Goikoelexalde auzoa, Zamudion Parke Teknologikoa, Derion hilerria... Gainera, edozein gai jorra deza-kegu Txorierrin, berton denetarik daukagu eta: gune naturalak, baserriak, lantegiak...

Sondikako argazki zaharren bilketan egin zenuten iaz...

Herria gero eta modernoagoa da. Baserrien itxura, ohiturak, jantziak eta abar aldatuz doaz denboraren poderioz. Sondikan ez zegoen argazki-artxiborik, eta hainbat eta hainbat dokumentu galtzeko zorian zeudenez, argazkiak biltzea pentsatu genuen. Guztira, 175 argazki bildu genituen. Gehienak nahiko modernoak ziren, baina balio handiko batzuk ere topatu genituen: Asuako Siga enpresari 1920an

eginiko argazki bat, aireportua egiten ziharduteneko argazkiak, eliza zaharrarenak, 1940. urteko futbol taldearenak... Datorren urtean-edo beste deialdi bat egiteko asmoa daukagu, ea argazki gehiago lortzen dugun.

Zer hartu behar da kontuan argazki on bat egiteko?

Lehenengo eta behin, oso argi eduki behar da zer adierazi nahi den. Eta hortik abiatuta, argia, enkoadratzea, flasha, eta beste gauza batzuk zaindu beharko dira. Edozein gai hartuta egin daitezke argazki adierazgarriak, nahiz eta munduko gauzarik sinpleenak izan: zakarrontzi bat, iturri bat...

Zuri-beltz ala koloretan?

Argazki bakoitzak bere teknika dauka. Erretratu bat egin nahi izanez gero, hobe da zuri-beltzean egitea, koloreak informazio gehiegi ematen baitu. Eta aurpegiaren espresioari baino gehiago, koloreari erreparatuko diogu azkenean. Paisaia batek, berriz, kolorea eskatzen du. Gainera, argazki berak gauza desberdinak adierazten ditu zuri-beltzean edo koloretan. Adibidez, lagun batek azoka arabiar bati argazkia egin, eta kopia bi errebelatu zituen: bata zuri-beltzean eta bestea koloretan. Azken honetan okela eta arrainak nabarmentzen ziren, baina pertsonak askoz deigarriagoak ziren zuri-beltzeko argazkian.

Taldeari dagokionez, baduzue aurrea egiteko laguntzarik?

Udalak utzitako Kultur Etxeko lokal batean biltzen gara, eta laborategia ere bertan daukagu. Gainera, diru laguntza ere ematen digu urtero.

Etorkizunerako planik?

Bada, ekitaldiak antolatu eta argazkigintzaren inguruan lan egiten jarraitzea, batez ere. Orain dela gutxi, Derioko argazki taldearekin harremanetan jarri, eta etorkizunean elkarri laguntzeko asmoa daukagu.

Testua: Itxaso Marina

Argazkiak: Sondika Goiri Argazki Taldea

Aretxalde Zalditegia

Duela urte eta erdi Lezamako Madariaga (Madaria) auzoko behitegi bat hartu eta zalditegi bihurtu du Ibon Etxegarai gazteak. Gazte batek benetan ausarta izan behar du, horrelako lan bati ekiteko, baina Ibonek, ausardiaz gainera, lan egiteko kemena eta zaldien ezagutza ditu bere alde.

ditugu zaldientzat. Beste proiektu batzuen artean beste pista bat eraikitzeke asmoa dugu.

Zelako zerbitzuak eskaintzen dituzue, beraz?

Alde batetik didaktika eskaintzen dugu, hau da, datorrenari irakatsi egiten diogu oinarritzko arauetatik lehiaketaraino. Bestetik, zaldientzako egoitza edo hotel zerbitzua ere eskaintzen dugu eta zaldientzako lekurik edo astirik ez duenak zerbitzu hori kontrata dezake. Azkenik, zaldiak hezi egiten ditugu, eta, gura izanez gero, zaldi heziera klasikoan, erresistentzia frogak edo jauzi egiten trebatzen ditugu. Gainera, ikasleren batek zaldia erosi gura badu, aholkuak ematen dizkiogu.

Zaldienganako zaletasuna handituz doa. Zer du, bada, kirol honek?

Bada, ematen ez badu ere, ariketa fisiko handia egin behar izaten da. Igeriketarekin batera kirolik osoena ei da eta, gainera, sei urtetik hirurogeira arte praktika daiteke. Eta naturarekin harremanetan egoteko aukera paregabea eskaintzen du; horrexegatik, hain zuzen ere, estresaren aurkako erremedio ona dugu.

Amaitzeko, zer aholku ematen diguzu?

Zalantza barik, probatu egin behar dela eta ikastarotxo bat —hamar bat ordukoa— eginda, oinarritzko ezagutza har daitekeela eta baita paseo bat edo beste eman ere. Gainera hasiera batean ez da behar ezer berezirik, maila eta bota batzuk nahikoa dira eta.

Ibon, nondik datorkizu zaldienganako zaletasun hau?

Gaztetandik ibili naiz mundu horretan: lehenengotan Gasteizen, gero beste urte bi Frantzian, horren ostean Marurin eta, azkenik, hementxe.

Zer dela eta Lezaman?

Leku paregabea dugu Madariaga inguru hau. Berton sei hektarea (60.000 metro koadro) daukagu zaldiak mantentzeko eta jendea zaldiekin trebatzeko. Lur hauek guztiz aproposak dira gure zereginetarako: batetik, lauak eta ederrak dira eta, bestetik, aukera handia ematen digute Ganguren menditik-eta paseoak egiteko. Hortik aparte, Bilbotik eta beste populazio gune handietatik hurbil egotea erabat garrantzitsua da negozioa martxan jartzeko.

“Didaktika irakasteaz gainera, zaldientzako egoitza edota hotel zerbitzua eskaintzen dugu”

Zelakoa izan da hau martxan jartzearen prozesua?

Lur hauek hartu eta bertan zegoen behitegia zaldientzat egokitu dugu. Geuk egin dugu lan guztia, eta bertan lan gogorra izan da, baina merezi izan du. Hogei zaldientzako kortak egin ditugu, eta ezagutzen ditudan kortarik handienak dira hauek, bakoitza 4,5 x 3,5 metro koadrokoak dira eta. Zaldientzako pista ere oso ederra da eta gainerako lurak ere prestatu

Microsoft-eko buletinak



Testua: Alberto Legarreta

Hilaren bigarren martitzenean segurtasunari buruzko buletinak ateratzen ditu Microsoft enpresak. Buletin horreetan enpresaren informazio garrantzitsua emoten da ezagutzera.

Urriko aldizkarian bere softwareak dituan hamar akatsen barri emon dau; honeetatik zazpi larriak dira, eta hiru garrantzitsuak. Hona hemen huts bakotxaren azalpena:

0-MS04-038. Egunerapen honek Internet Explorer-eko zazpi akats barri konpontzen ditu. Aurreko eguneraketak be sartuta dagoz bertan. Arazoa daukan programa: Internet Explorer 5.01,5.5,6.0. Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-038.msp>

-MS04-037. Windows Shell-ek daukan akats kritikoa. Hutsa dauken sistema operatiboak: Windows NT 4.0, Windows 2000, Windows Server 2003 eta Windows XP(SP2 instalatuta izanez gero, ez dago arazorik). Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-037.msp>

-MS04-036: NNTP-en akatsa. Hau News-ek erabiltzen dauan protokoloa da. Windows NT Server 4.0, Windows 2000

Server, Windows Server 2003, Exchange Server 2000 y Exchange Server 2003 sistema operatiboetan agertzen da. Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-036.msp>

-MS04-035: SMTP protokoloaren arazoa. E-mailez erabiltzen da. Windows XP, Windows Server 2003 y Exchange Server 2003 sistema operatiboetan azaltzen da. Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-035.msp>

-MS04-034: Zip fitxategiaren akatsa. Windows XP-en agertzen da. Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-034.msp>

-MS04-033: Microsoft Excel-en akatsa. Bertsioak honeek dira: Excel 2000, Excel XP, Excel 2003, Excel 2001 Mac y Excel v. X (Mac). Helbide interesgarria:

<http://www.microsoft.com/technet/secu->

[rity/bulletin/MS04-033.msp](http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-033.msp)

-MS04-032: Microsoft Windows-eko egunerapen honek lau akats larri konpontzen ditu Windows NT 4.0, Windows 2000, Windows XP eta Windows Server 2003 sistema operatiboetan. Xp-n Service Pack 2 instalatuta badaukazu, ez dozu behar. Helbidea: <http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-032.msp>.

-MS04-031: Windows-eko (98, ME, NT 4.0, 2000, XP eta Server 2003) NetDDE osagaiari kalte egiten deitso; Windows XP Service Pack 2ri, oster, ez. Helbidea: <http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-031.msp>

-MS04-030: WebDAV XML mezuak bialtze gestorearen arazoa. Windows 2000, Windows XP (Service Pack 2 izanez gero, ez dago hutsik) eta Windows Server 2003 sistema operatiboetan agertzen da. Helbidea: <http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-030.msp>

-MS04-029: RPC bibliotekaren akatsa. Dibulgazio edo Zerbitzuaren ukapena sortu leike Windows 2000, Windows XP (Service Pack 2 ere), Windows Server 2003, Windows 98 eta Windows ME sistema operatiboetan. Helbidea: <http://www.microsoft.com/technet/security/bulletin/MS04-029.msp>

Hasieran aitatu dogun bezala, lehenengo zazpi partxeak larriak eta beste hirurak garrantzitsuak dira. Helbide horretan zelan konpondu azalduko jatzu. Eta lehen bait lehen egin behar da, ganera, akats horreez baliatzen diran birusak sartu daitekezalako. Beste helbide interesgarri bat:

<http://www.microsoft.com/spain/seguridad/boletines/MS04-029-038-USER.msp>

Bidali zure iradokizun edo zalantzak hurrengo helbide elektronikora: traktor@euskalnet.net

Olatik Artxandara, ermitarik ermita

Udazkenak egun zoragarriak oparitzen deuskuz oraindik. Paseatu eta eguraldi onaz gozatzeko egunak. Hurrengo lerrootan egun eguzkitsu horreetako batean egiteko txangoa proposatzen deusuegu: Sondikako Ola auzotik Artxandara.


Olan, Izartzako San Martin ermitan, hain zuzen be, hasiera emongo deusagu ibilaldiari. Baseliza 1971. urtean behera bota, eta berreraiki eben 14 urteren ostean, Garaiko Santa Catalina ermita eredutzat hartuta.

Artxandarako bideari jarraituz, aretx eta urkiez osatutako baso txiki bateraino abiatuko gara. Igoerari ekiten deusagun bitartean, ez da arraroa izango zapelatzen bat ikustea, presaren bat harrapatzeko prest zelaian artean. Basotik gertu Aitzkurutzeta baserria izango dogu. Historia handiko etxea da Aitzkurutzeta, 1760. urtean eraikin ei eben eta.

Hainbat jatetxe aurretik pasatu ondoren, San Roke ermitarako bidea hartuko dogu. Atsedena egiteaz ganera, tokiaren edertasunaz gozatu ahal izango dogu bertan. Horrela, bada, Kantauro itsaso eta Castro Urdialeseko mendien ikuspegi ezin ederragoa daukagu San Roke baselizatik. Halaber, arteek eta txilar lilek apaintzen dabe ingurua, baita oteek eta loretxo zuriek be bai.

San Roke ermita 1981. urtean berregin eben, eta liburuetan azaltzen dan bezala, antxina Bilbo eta Sondikako alkateak biltzen ziran bertan abuztuaren 16an, Meza Nagusia entzuteko.

Indarrak berrituta, Artxandako haize-errotara joko dogu. Manuel de Bildosola bilbotarrak 1725. urtean eraikin eban errotea, artoa eta garia ehotzeko haizearen energiiaz baliatuz. Izan be, garai



horretan jasatako lehortek gauzaeztandu ebazan ur-errotak. Ganera, Bizkaiko beste haize-erota batzuk egiteko eredutzat hartu eben Artxandakoa.

Eskumatara egin, eta 500 metrora Artxandako parkea topatuko dogu. Ehun urteko hagin eta ezkien gereizpean amaitutzat emongo dogu txangoa.

Kolonbian bidaiari



Montserrate menditik alde batera begiratuz gero, izadiatz betetako mendiak ikusten ditugu; mendi horietan "guerrilla" omen dago. Beste aldera begiratuta, ordea, 6 milioi baino gehiagoko biztanle-riarekin, Bogota daukagu. Iparaldean altuera handiko eraikinak, etorbide zabal-
lez inguratuta, non txakurrak ere oinutsik ibiliko diren. Hala ere, askok eta askok hegoaldeko pertsonen baino dieta hobea edukiko dute. Hegoaldean, aldiz -kontatzen dutenez, sartzea nahiko zaila baita, txabolak dira nagusi, batzuk blokez eginda, beste batzuk egurrez eta, azkenekoak, kartoiez, asfaltatu gabeko kaleen artean. Auzo bi hauen erdian Kandelaria dago, kolonial itxurazkoa. Museoa eta gobernu-ko eraikin printzipalak nahastatu egiten dira bertan. Erdialde honetan ejertzitoaren presentzia nabarmena da.

Koloniar arkitekturaz mintzo bagara Cartagena aipatu behar dugu. Bogotatik 1.125 Kilometrora, abioiez ordu eta erdiko bidaia bada ere, odisea bihurtzen da errepidez eginez gero, karabana batean joan behar baita. Aurrealdean eta atzealdean ejertzitoa doa, baita erdian ere, autobusekin eta autoekin nahastuta. Bidaiatzeko modu horrek askatasun sententzia handia ematen die koloniarrei.

Cartagena de Indias Karibeko itsasorri



Kolonbian kooperante ibili da Iñigo

itsatsitako XVII. mendeko hiria dirudi; gazteluz, harresiz eta gotorlekuz inguratuta, espainolek lapurtutako urre guztia salbu edukitzeko. Hirira Pegasoen portutik sartzen gara. Antzina, penintsulara zetozen galeoiak hemendik irteten ziren. Bertan, plazan, esklaboak salerosten zituzten. Inkisizio jauregirako bidetik hainbat eliza eta komentu ikusten ditugu, erlijioak garai hartan zeukan boterea erakutsiz edo. Kale estu hauetatik zehar, zenbait etxe kolonial topatzen ditugu: merkatarienak, militarrenak eta gutxi batzuk menperatutako indi-

genen kazikeenak. Hemendik atera ziren hainbat gudaroste Muisca, Yagua, Pijao, Calima eta abarreko herriak kolonizatzen.

Baina harresietatik kanpo beste Cartagena bat dago: txabolez beteta, konfliktu armatuak beraien lurretatik botatuko jendez gainezka; turistek eta itsas portuak ematen duten sosaren bila etorri direnak.

OTestua eta argazkia: Iñigo Urrutia

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Okela Xehatua Saltsan

Osagaiak (5 pertsonentzat)

Kilo erdi okela xehatu
Ogi mamina
Arrautza bat
Kinpula bat
Oliba orioa
Uruna
Gatza
Tomatea
Saldea edo ura

Prestatzeko era

Ogi zati bati azala kendu eta mami-na esnetan bigunduten ipini. Bota okelata-rra arrautza bat batiduta, koilarakada bat urun, gatz apur bat eta ogi mamina ondo eskurriduta. Hau dana ondo nahastau eta urunegaz lagunduta emon xerra edo biribil forma. Ipini sartenean orioa eta prijidu. Saltsa egiteko, kinpula bat txikitu, oke-lea prijidu dogun orio berean. Hau ia gorrituta dagoenean bota koilarakada bat urun eta eragin danari ondo gorritu arte. Bota tomate txorrostada bat eta saldea edo ura eta gatza egin. Hau guztiau hamar minutuan euki irakiten



Mari Tere Onaindia

su txikian. Pasau dana txinotik eta bota okelata. Hau danau 5 minutuan irakiten euki... eta on egin!

Gihar-biribilkia

Osagaiak (4 lagunentzat)

Kilo bat gihar (pieza osoa)
Azenario handi bi
Porru bat
Kipula bi
6 baratxuri atal
Tomate heldu bi
Oliba olio
Kopa bat koñak
Edalontzi erdi bat ardo zuri
Ura eta gatza

Prestatzeko era:


Lapiko batera olio apur bat bota, eta su epeletan jarri. Barazkiak garbitu eta zatitu ondoren bota lapikora. Gihar-biribilkia gazitu,

eta hiru minuturen ostean kazolan ipini. Barazkiei eragin eta giharrari buelta eman. 15 minutu pasa ondoren, dadotan eginiko tomateak gehitu.

Dena gorrituta dagoenean, koñaka bota eta erre. Ardoa gaineratu eta urez estali. Lapikoari tapa jarri, eta lantzean behin eragin.

Ura kontsumitzen denean, giharra atera eta hozten utzi. Barazkiak irabiagailuz pasatu, eta gatza egin; behar izanez gero, ur apur bat ere bota ahal zaio. Giharra xehatu eta zerbitzatu saltsarekin eta patata purearekin lagunduta.

Leke's jatetxea Zamudion.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Hausturak", 1995

"Joan zaretenean", 1997

"Atlantidara biaja: memory boom", 2000

"Bizia lo", 2003 (Euskadi saria, 2004)

Jokin Muñoz

"Gaur egun handia da"

Imanol Azkue

"Okili-kiki"

Juan Kruz Igerabide

"Kandinskyren tradizioa"

Ramón Saizarbitoria

Osaba bin floren

Txiliku

Haydn-en lora

Felipe

DISKOAK

O-tik. Gari

Gariaren hirugarren diska honetan, kanta indartsuak eta soilak rock bizian

Edan hemendik. Urgabe

Urgaberen hirugarren diska. Gonbidatu bezala Gatibuko Alex Sardui


Photograma. Zein?

Zein? Taldearen diska berria. Pop kantua eta rocka uztartzen dabez

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri?

Txorierrin ez da zaila ermitak aurkitzea. Hemen bertan aurkituko dituzue-nak gure bailarako herri ezberdinetakoak dira. Lotu itzazue ermitak, zein herritan aurkitzen diren eta beraien izenak. Ea asmatzen dozuen!




A



B



C



D



E



F



G

LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Santa Kruz h

San Esteban i

San Kristobal j

Santa Kruz k

San Migel l

San Bartolome m

Santo Tomas n

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri? Emaizak: A7i, B1m, C4h, D6i, E5k, F2n, G3j



Antzerkia eta filmak

Lezama

El Show de Javier Mañón. Azaroaren 12an, 19:30ean, kultur gelan

Atxagaren *Antonino Apreta* ipuina, Gorringo taldearen eskutik. **Umeentzako antzerkia.** Azaroaren 12an, 19:30ean, liburutegian

Azokak

Sondika

Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka. Azaroaren 14an, 10:00etatik 14:30etara, Ikurrina plazan eta geltokiko aparkalekuan

Zamudio

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Azoka, azaroaren 7an



Hitzaldiak

Larrabetzu

Umeen lana Nikaraguan eta Costa Rican, Iñigo Urrutiaren eskutik. Azaroaren 17an, Anguleri jauregian

Ikastaroak

Zamudio

Odoloste ikastaroa. Azaroaren 24tik 26ra bitartean. Argibide gehiago Mendikoi eskolan

Larrabetzu

Makillaje ikastaroa. Azaroaren 6, 13, 20 eta 27an, 11:00etatik 13:00era bitartean, Anguleri kultur etxeko aretoan

Irteerak

Lezama

Mota eta Cuetora (Burgos) Azaroaren 28an, 8:30ean, Gailur mendi taldeak antolatuta

Jaiak

Sondika

San Martin, azaroaren 11n. Meza Nagusia, aurrekua...

Zamudio

San Martin, azaroaren 10etik 14ra bitartean

Kirola

Sondika

Eskupilota jaialdia: Azaroaren 19an, 22:30ean, Goronda Beko kiroldegian

Zamudio

Idi probak. Azaroaren 4, 5 eta 6an

Lehiaketak

Sondika

Gabon Txartelen XIII. Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea abenduaren 10era arte

Lezama

Gabon Txartelen VI. Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea abenduaren 25era arte

Erakusketak

Sondika

Fas zineklubaren 50. urteurrena. Azaroaren 2tik 12ra, liburutegian
Sondika Goiri argazki taldearen erakusketa. Azaroaren 15etik 30era bitartean, liburutegian

Tunning autoak. Azaroaren 21ean, egun osoan, geltokiko aparkalekuan